

Francisco de Izagirre, bere sasoiaren aurretik



GAUR EGUNIAN EZ GAITXU EZERK HARRITZEN, ALDAKETAK ETA HOBEKUNTZAK EGUNEROKO OGIXA DIA. BAIÑA XX. MENDE HASIERARA EIÑ BIHAR DOGU SALTO ETA EZ ZAN ERRETZA IZANGO ALKATE BE IZAN ZAN GIZON ILUSTRATU HONEN IDEIA, BURUTAZIÑO ETA KULTURA MAILLIA ONARTZIA. ASTRONOMIA, ELEKTRONIKA, FISIKA, MEKANIKA ETA ARGAZKILARITZA ZALE HONI ESKER ESPAIÑA OSUAN ERMUAN ENTZUN ZAN ESTREIÑEKOZ 'RADIO PARIS'.

Francisco de Izagirre y Alberdi, azpeitxiarra jaiotzez, Ermura ezkondu zan Eskolastika Garaterekin, honen Erdikokaleko "Erleta" etxera (gaitxizenez Eskolanekua). Hantxe jaiho zian andra-gizonon 13 seme-alabak, 7 bizi izan bazian be; Tomasekin, Eibarren ginekologo ezaguna dan bere seme gaztietenarekin egondakuak gara.

Eskolanekua etxe kuadro edarra zan, eta da. Dana biharko zan, ze etxe kuokin batera han euazen aitxa Patxikoren erloju, barometro, baskula, esfera eta tresneria guztixak. Eusko Trenbidieta-ko Zerbitzu Elektrikoan zuzendaria zan lanbidez eta bere ardurapian euazen konpainiaren erloju guztixak. Bizkaiko Diputaziñoko erlojeru ofiziala zan; haren kargu euazen baitxa Eibarko udaletzekua, Ermukua eta Zaldibarko zoroetzekua. Etxian be banaka batzuk zitxuan; Tomas semeak ondo gogoratzen ditxu hormiari lotutako bi, bardin-bardiñak eta barrutik moketiakin forrautakuak "penduluaren danbatekuak hotsik etara ez eta prezisiño gehixao euki deixian".

Esperimentatzen beti

Elektrizidadiakin saltseuan ibiltzia itzelian gustatzen jakon, txinparta eta voltixuekin burrukan beti. Biha-

retik bueltan, goiko pisuan egokitxuta ekan taillartxuan sartzen zan bere asmakizunetarako bihar zitxuan piezak eitxen. 15 urteko mutil koxkorra zala erloju bat eitxeko gauza izan bazan, etarra kontuak! Afalostian, danak erretirautakuan, bere estudixo eta aprobakin jarraitzen eban, izarrei begira egoten ez bazan. Ganbara gainñan txosnatxo karratu bat eiñda ekan (plazatik oiñtxe be edarto ikusi zeinkezue-na), lau norabidietan begiratzeko pentsautakua. Zertarako? Ba barruan gordeta euan teleskopioa zabaltzeko. Bai jaunak, zerua hurreratzeko tutu luzenka baten jabe zan. Tomasek gogora ekarri zoskun hara gora igoten ebane-kua: "salaua zan gure aitxa. Esaten zoztan: jarri hari hamen eta esaik zer ikusten duan. Txarto esan ezkerotxak, kaskarrekuak: hori ez dok Jupiter, han ikusten duana dok. Jupiter dakat buruan sartuta, akabo norarte!".

Kultura gose ase eziñeko gizon aparta zan, danetik ekixena, danataz jakinmiña erakusten ebana, argixa sekula eta iñun bazan. Tomasek diñoskun legez: "nork ekan ba orduan denporetan Ermuan Espasa entziklopedixia?". Patxikoren liburute-gixa osatzen dabenei erreparruaz Topografia, Fisika, Telegrafia, Geografia, Musika, Anatomia, Filosofia, Etimologia edo Aritmetikaren gai-



MUGA

KALONIK

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

Kultura gose ase ezineko gizon aparta zan Francisco de Izagirre

ñeko idaztixekin batera, frantsesez idatzitako hainbat liburu eta hiztegiakin eñ gendun topo.

Galenazko irratixa


Baiña "Erleta" etxeko makinarixa guztixen gaiñetik, han euan irratixa zan ikusmira gehixen sortzen ebana. Galena metalezkoa zan eta Txabisolan, Igartuaneko txaletaren osteko basuan ekan *ipiñitxa antenia*. "Gure etxian entzun zan lehenengo-lehenengo 'Radio Paris'. Egun horretan, egunero lez errosarixora jua aurretik, beheko ezkatxian batu zian gure amaren lagunak, gaur 'Bolintxo' panaderixia dan lekuan. Agur esan eta aitxak gora igo eban, ixotu radixua eta ene, berbetan sentidu eban. Pentsau eñ eixeban: gure andrak elixara jua bihar eta ondiñok hor daoak. Horrek androk eitxen juek berbatan! Urten ebala eta... iñobez!". Hurriñetik be etorten zan jendia haxe entzuteran; orduko pertsonalitate asko pasau zian haren etxetik, garrantsi haundiko politika, kultura eta eliz gizon ugari.

Etxekoia

Gizon zuzena zan, berbakua, esijentia bere buruakin eta iñonakin. Seme-alabak be zorrotz ibilli bihar iza-

ten zian haren aurrian. "Anaixak esaten zostien: *hik ez dok aitxa ezagutu. Zintxuroian hebillia ezik pentsau eskuan hartzen ebanik, hebillaburdiñiakin bardin-bardin emoten zoskun*". Umiok aidian ebalten bazitxuan be, bere emazia kariño haundiz tratatzen eban: "ez dot sekula santan ezagutu amari berbatxo bat bata bestia baiño altuaua eitxen eta euren arteko diskusiñorik bez", azpimarratu zoskun Tomasek. Nonnoz arramaskaren batzuk bai itxuria, ze semiak ahaztu barik daka aitxari entzundako esaldixa: "hará, gatxaua dok honek etxeko androk domiñatzia Garellanoko erregimendu guztixa baiño!". Eskolastika bera be, ez zan makala; gizonaren dedikaziño eta jakindura maillara aillegatzen ez bazan be, pianuajolia zan eta seme-alaba danak alabandik hasitxa estudixuetara bultzatu zitxuen, batzuk amaitzera allegau ez bazian be. Gabero-gabero goiko saloian batzen zan famelixa guztixa eguneko musika kontzertua entzutera. "Afastoian, derrigorra zan. Aitxa eta Esteban anaixa biboliñera, ama pianora... jarri bai behian gaiñian eta amaitxu arte, geldik eta piano

**Orduko
pertsonalitate
asko pasau
zian beran
etxetik**



Patxiko, bere etxeko taillar mekanizat

gaiñeko harek Mozart eta Beethovenen bustuei begira. Hantxe ezagutu nitxuzan *Rigoletto eta abarrok*." Behin Valentziako Artzobispua etorri zan urak hartzera Urberuagara eta han emon zotsien Izagirreren radixuaren barri. Etorri eta akordau jakon andra-gizonak nahi zitxuala musikia joten entzun; Eskolastika lotsatu eta estutu eñ zan. "Bakizu zer zan orduan Artzobispua norberan etxian egotia? Gaur egun Asnar edo Ibarretxe etortia lez", gogoratu zoskun Tomasek irribartsu. Artzapezpiku harek ez ekan itxuria esku hutsik juateko asmorik eta esan ebala: "trankil, ni hementxe jarriko naz". Eta bere lurrerainoko atorrokin eskilara buruan jarritxa euki eben, eurak saloian jotzen eben bitxartian.

Ez ulertua

Azken hobekuntzen jakiñian beti, gerra aurreko urtietan kalefakziño zentrala be baeken etxian, kaldera haundi batetik radiadorien bitxartez gela guztixetara zabaldua. Alkate izan zanian be (dakigula 1909-1916 urtien artian) bere agintian eñ-

dzarik nabarmena Igetara ur korrontia eranalizaziñua izan zezintxasunaren ondotrako eritzi eta ko jaso zitxuan.

n eta neurri berrixia sortzen eban gñ. Baiña hogeitamerriak dana aldatu ehn aitortu zoskun guemaiñiak: "gerra hasi zan gure fan deklibia. Aitxariuzarik maitxatueñgau zotsiezen; radiu be nunbaitxera er. Pena itzela egon za".

baiño nahixau nekikoren irudi barratekin amaitzia. Ikizango zan ha gizon serixua, Sta. Zuneke goixaldera Bazan jotzen zihardunto, levanta'ren kctoalla haundi bat hala erdixan dantz Eskolastika, ohetiliko, zoratu zara Tomas txikixa, guogelan, zarrapariuta, betirako gogdaben momentua bi.

Estibaliz González

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



ZUBIARE

ELEKTRI.

**INSTALAZIO ETA MUNKTRIKOAK
MANTENIMENDU IRIALA**

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 943 17 42 17
48260 ERM